

## Plaza &gt; Bizia

# 50 urte txinpantzeak defendatzen

1960an hasi zen txinpantzeak ikertzen Jane Goodall, denborarekin zientzialari talde bat osatu eta bere institutua ere sortu du

Euskal Herrian izan da bere azken 50 urteetako lanak eta ikerketak azaltzen

**Xabier Otamendi** Donostia


1960ko uztailaren 14an Jane Goodall Tanganika aintziraren ertzean dagoen Gonboko erreserba naturalera iritsi zen, Tanzaniara. Ez zen ikerlaria, ez zeukan inolako titulaziorik arlo horretan, baina animaliak aztertzeke irrika eta ilusioa soberan zeuzkan. Txinpantzeak behatzen eta ikertzen hasi zen orduan, eta ekarpen handiak egin ditu animalia horien iraupena bermatzeko.

«1986an, lau eguneko kongresu bat izan zen txinpantzeen inguruan, eta orduan atera nuen ondorioari esker, jendea kontzientziatu nahian nabil ordutik». Ikertzen ari diren bitartean, aldamenen isilpeko ehiztariak txinpantzeak eta galtzeko arriskuan diren beste animalia batzuk akabatzen dituzte, haien haragiak edo beste zerbaitek daukan balioagatik. Horregatik, mundu osoan bueltaka dabil, jendeari kontzientzia piztu nahian. 1986rako zientzialari taldea osatuta zeukan, beraz ez zuen bakanrik utzi bere proiektua.

Atzo Euskal Herrian izan zen bere bizitzaren eta txinpantzeen ingurukoak azaltzen. Txillida Lekun eman zuen hitzaldia, Tolosa Naturaldia natur jardunaldiaren barruan; berak eman dio amaier ekimenari. «50 urte dira txinpantzeak ikertzen joan nintzenetik, baina ez daramatzat urte horiek guztiak txinpantzeen ondoan», jakinarazi zuen hitzaldiaren aurretik goizean eman zuen prentsaurrekoan.

**Aurkikuntza garrantzitsuak**  
Zientzialariak lanean jartzea lortu zuen Goodallek Gonbera iritsi eta hilabete gutxira. Txinpantzeak erremintak egiteko eta horiek erabiltzeko gai zirela ikusi zuen. Ordura arte, uste zen gizakiak bakarrik zirela horretarako gauza. Horregatik, gizakiaren definizioa konpondu behar izan zuten zientzialariek. Bestalde, haragia ere jaten zutela ikusi zuen, eta ordura arte, belarjaleak zirela uste zen.

Jane Goodall Institutua sortuta dauka, eta «guztira 27 institutu» dituztela dio. AEBetan hasi ziren, entzute handia baitzeukan



Jane Goodall, atzo goizean Donostian egin zioten harreraren argazkia ateratzen. IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

*National Geographic* aldizkari ezagunak eskaini zizkion erreportajeei esker. Oraindik ere gehiago nahi dituela garbi dago. «Ea Euskal Herrian ere sortzea lortzen dugun».

Txikitutako lurra berriro ongi jartzea posible dela dio, baina horretarako gizakien portaera aldatu beharra dagoela ere bai. «Beha-

rezkoa da bizitza iraunkorrago bat eramatea, gure haurrei mundu hobe bat utzi nahia badiegu». Gauzak konponduko diren esperantza badauka, esperantzarik izan ez balu ez lukeela «hain bizitza eroa» eramango, dio. Gainera, gazteak gauza asko egiten dituztela eta horrek ere esperantza ematen diola jakinarazi du.

Dokumental bat egin berri dute Goodallen azken 50 urteen inguruan. Gonbera joan zenean izan zituen zailtasunetatik hasi eta gaur egun egiten dituen bidaiak erakustera iristen da. «Oso polita» dela dio berak, eta bere burua pantailan ikustera ohituta dagoen arren, dokumentala ikusi zuenean asko hunkitu zela dio.

**Jane Goodall** • Naturalista eta etologoa

## «Gizakiak hobeto ulertzen lagundu didate txinpantzeek»

**X. Otamendi** Donostia

Jane Goodall (Londres, 1934), txinpantzeak ikertzen joan zen 1960an Tanzaniara. 1986ra arte horretan ibili zen, baina ikerketekin bakarrik txinpantzeen egoera salbatzea zaila zelako, eta ikerketa taldea martxan jarrita zeukalako, mundu osoan txinpantzeen inguruko azalpenak ematen ibiltzen da urtean 300 egunez. Txillida Lekun hitzaldia eman zuen atzo, Tolosa Naturaldia natur jar-

dunaldiei amaiera emateko. Aurretik, labur bada ere, galdera batzuei erantzun zien.

**Zer eman dizute txinpantzeekin bizitako urte horiek?**

Gizakiok animalien erreinuko parte garena konturatzen lagundu dit. Oso harroak gara, garrantzitsuagoak garena pentsatzen dugu; are gehiago, gure inguruko jendea beste inor baino garrantzitsuago dela uste dugu. Gizakiak hobeto ulertzen lagundu didate txinpantzeek.

**Txinpantzeak gizakiak adinako ankerrak izan daitezkeela diozu. Zer ikusi duzu hori esatera iristeko?**

Elkar hiltzen due, kanibalismora ere jotzen dute, komunitateen arteko gerrak ere izaten dituzte... Komunitate bat beste bat oso-osorik suntsitzera iritsi izan da kasu askotan. Oso gogor jotzen dituzte, eta sortutako zauriengatik hil egiten dira. Orduan, besteena zen lurraldea beraiantzat hartzen dute.

**Oinarrizko zer gauza egin beharko li-**

**rateke txinpantzeen egoera normalizatzeko?**

Galdera handia da hori. Basoa babestu behar dugu lehenik eta behin. Bertan bizi diren herritarren bizi-kalitatea hobetu beharra daukagu. Izan ere, kasu gehienetan, zuhaitzak moztu behar izaten dituzte beren bizia aurrera atera ahal izateko. Era batera edo bestera, Afrikako, Brasilgo eta beste zenbait tokitako politikariengan eragin behar dugu. Egur enpresa handiek egurra saltzeari

utzi behar diote. Egurra saltzen dirua egin beharrean, ideia zera da: enpresa kutsatzaile handienek, gas isuriengatik ordain moduan, bertako biztanleei dirua ematea, basoak gehiago suntsitu beharrik ez izateko. Horrela basoak mantentzea lortuko litzateke. Redd izeneko programa begira dezakegu. Inguru tropikaletatik etorritako egurra ez erosten ere saia gintezke. Jane Goodall Institutuari eta horrelako elkarteei lagun geniezake, txinpantzeak babesteko kanpainetan laguntzeko. Egoera ulertzen laguntzeko jendea hezteko ona litzateke. Munduko baso hezeen suntsipena munduaren klima aldatzen ari da, atmosferara CO<sub>2</sub> asko isurtzen ari delako. Basoak salbatzen saiatu behar dugu, hori da oinarritzkoena.